

UROLA KOSTA

Aia
Aizarnazabal
Azkoitia
Azpeitia
Beizama
Errezil
<b>Getaria</b>
Orio
Zarautz
Zestoa
Zumaia

## «Orain arte isildutakoak» kontatu ditu Gari Berasaluzek Elkanoren biografian Getaria 'Elkano, itsasoak emandako bizitza' biografian «Elkanori buruz orain arte isildu nahi izan diren kontuak» bildu ditu



### ONINTZA LETE

Joan Sebastian Elkano euskal nabigatzaile eta marinel famatuenetakoa da, eta mundu guztian da ezaguna. Miretsia eta kuttuna dute bere herrian ere, Getarian. Liburu asko idatzi da hari buruz, baina «garai hartako eta bere inguruko kontu asko ezkatatu izan da beti», Gari Berasaluzek kazetari eta idazlearen esanetan. Bera alderdi ezkatu hori argitara ematen saiatu da *Elkano, itsasoak emandako bizitza* biografia libururaren bidez. Elkanoren bizitza eta bidaiari inolako garrantziarik kendu gabe, garai hartako beste zenbait «alderdi ilun» ere kontatu du.

### Testuinguruan kokatu du

Miresmenez hitz egin izan da beti Elkanoz, «nagusiki hasieran gaztelarren eta gero espainiarren begietatik kontatu izan zaigulako historia». Hala ere, ezin da ahaztu Elkanoren garaiko testuinguru historikoa: «XVI. mendea da, Inkisizioa indarrean da eta Gaztelak armen indarraren bidez zabalzen du ahal duen lekura bere erresuma. Itsas armadak dira lurralde berrietara iristeko bitartekoak eta interes politiko eta ekonomiko hutsagatik, izugarriko sarraskiak egiten dira. Hor kokatu behar dira Elkano eta garai hartako bidaiak».

Bestalde, Berasaluzek ez dio garrantziarik kendu nahi Elkanoren bidaiari eta marinel haiek egindakoari, «garai hartan, garai hartako baliabideekin, munduari buelta ematea lortzea sekulakoa baita». Batak ez du bestea kentzen, ordea, eta liburuan «Elkanok eta gainerakoek bizitakoak» kontatzeaz gain, «konkista odoltsuetan eta indarra erabiltzea ohikoa zen testuinguruan» kokatu du nabigatzailea.

Egileari uda honetan otu zitzaion Joan Sebastian Elkanoren biografia idaztea. Magallanesek hasitako bidaiari haratago, Elkanoren bizitza ezaguna zitzaioala ohartu, eta gehiago jakin nahian informazio bila hasi zen.

Orduan, ordea, «orain arte isildu dizkiguten kontu gehiegi» aurkitu zituen, eta horiek kontatu beharra sentitu zuen, «benetako historia ezagutu dadin».

#####

### LIBURUA

#### *Elkano, itsasoak emandako bizitza*

**Egilea.** Gari Berasaluze.

**Irudiak.** Dani Fano.

**Argitaletxea.** Txalaparta.

**Orrialde kopurua.** 172.

**Prezioa.** 13 euro.

**Bilduma.** Axuri Beltza.

#####

#####

## «Txinatarrek Elkanok-eta baino 100 urte lehenago eman zioten bira munduari»

GARI BERASALUZE *Elkano, itsasoak emandako bizitza* liburuaren egilea

### Kultura «Ezer ezkatatu gabe, benetako historia ezagutzea ezinbestekoa da getariarentzat», Berasaluzeren arabera

#### O. LETE

Gari Berasaluze (Getaria, 1975) kazetariak eta idazleak bosgarren liburua aurkeztu zuen atzo. Poesian eta haur literaturan bidea egin ondoren, biografia landu du orain: *Elkano, itsasoak emandako bizitza*.

**Liburuan diozu Elkano ez zela lehenengoa izan munduari buelta ematen.**

Hala da. Arrasto eta ikerketa nabarmenak daude txinatarrek hori ehun urte lehenago egin zutela esateko, baita europarrak txinatarrek egindako mapak eskuetan zituztela abiatu zirela esateko ere. Datu objektiboak dira horiek, gaur egun ezkatatu ezin direnak, horretarako arrazoi ekonomikoak eta politikoak izan arren.

**Herrian ondo hartuko al dute liburuan jasotzen duzuna?**

Hasieran harritu egingo direla uste dut, baina era berean, ezer ezkatatu gabe benetako historia ezagutzea ezinbestekoa da getariarentzat. Herrian miretsi egiten dute Elkano eta, beraz, orain arte isildu diren kontuak kontatzeko ordua iritsi dela uste dut. Ez zait zilegi iruditu Elkanok-eta egin zituzten sarraskiak ezkatatzea.

**Erraza izan al da Elkanori buruzko datuak eta informazioa biltzea?**

Bai, asko idatzi da hari buruz, baina gehiena espainiarren begietatik, nahi izan dutena soilik kontatuz.

#####



Beha Bidasoako Hitza

Hitza

Busturialdeko Hitza

Goierriko Hitza

Irutxuloko Hitza

Oarsoaldeko Hitza

Tolosaldeko Hitza

Urola Kostako Hitza

Lea-Artibaialdeko

weba



Bai Euskarari



Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Aldundia

